

Mikhail Ovrutsky: «Ohore handia da Pablo Sarasateren Stradivariusarekin jotzea»

Biolin jole gazteak hainbat kontzertu emanen ditu martxoan eta maiatzean Iruñean

Edurne Elizondo / Iruñea

Iazko Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketako irabazleak, Mikhail Ovrutsky gazteak, bira hasi zuen atzo Gasteizen. Martxoan eta maiatzean, berriz, Iruñean joko du, Sonya arrebarekin eta Sarasate Orkestrarekin.

MIKHAIL OVRUTSKY biolin jole gazteak Pablo Sarasate Nazioarteko Lehiaketaren bosgarren ekitaldia irabazi zuen iaz, eta, ondorioz, Nafarroako Gobernuaren eta beste hainbat erakunde laguntzailereren eskutik bira egiten ari da Euskal Herrian eta hemendik at.

Bira Euskal Herrian hasi zuen atzo, Gasteizen zehazki. Ondoren, martxoaren 3an, Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan joko du, bere arrebarekin, Sonya Ovrutsky piano jolearekin, eta martxoaren 9 eta 10ean eta maiatzaren 4an, berriz, Iruñeko Gaiarre antzokian. Hemen-dik at, Bartzelonan, Burgo-sen, Zaragozan, Pontevedran eta Madrilan izanen dira Ovrutskytarak.

«Bira ohore handia da eta aukera ederra»

Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketako irabazle gisa aurreneko aldiz joko du Mikhail Ovrutskyk atzo abiatutako biran, eta, hori dela eta, «oso kontent» agertu zen musikari gaztea atzo Iruñean egindako agerraldian. «Ohore handia da niretzat, eta auke-



JOXE LACALLE

Mikhail eta Sonya Ovrutsky musikari gazteak, atzo, Iruñean.

ra ederra. Arrebarekin batera oso gogor egin dut lan kontzertuok prestatzeko, eta entzule guztiak pozik uztea espero dut», erran zuen Ovrutskyk.

Hemeretzi urte besterik ez izan arren, seriotasun osoz eutsi dio Mikhail Ovrutsky biolin jole gazteak bere musikari jardunari, eta, egunero

zazpi ordu ematen ditu biolina jotzen.

Errusian jaioak baina estatu batuarak dira Ovrutsky anai-arrebak, eta kontzertu ugari eman dituzte han. Atzo aurkeztutako biran ez ezik, beste hainbat emanalditan parte hartuko dute aurtengo denboraldian, Euskadiko eta Galiziako

orquestra sinfonikoekin besteak beste. Pablo Sarasate Biolin Lehiaketa irabazi ondoren, gainera, San Petersburgoko Musical Olympus Festival jaialdian parte hartzera gonbidatu dute Mikhail Ovrutsky. Heldu den maiatzaren 28tik ekainaren 4a bitarte izango da San Petersburgoko Musical Olympus jaialdia.

San Petersburgokoa «kontzertu berezia» izanen dela aitortu zuen biolin jole gazteak atzo, baina ez da bakarra izanen. Izan ere, Madrilgo Kontserbatorioan martxoaren 17an eskainiko duen emanaldian Pablo Sarasateren beraren Stradivarius biolinaketa bat erabiliko du Ovrutskyk.

«Ohore handia da, eta, egia erran, apur bat beldurtuta nago. Baina, batez ere, ilusio handia egiten dit. Nire bizitza osoan jo dudana musika tresna zoragarriena da», erran zuen musikari gazteak. «Jotzen entzuteko irrikitan nago», gaineratu zuen Sonya haren arrebak.

Musikariokin batera, Nafarroako Gobernu Kultur Ekitaldien Zerbitzuko buru Jesus Maria Ben-goetxea agertu zen atzo komunikabideen aurrean, eta Pablo Sarasate Biolin Lehiaketako irabazleentzat diru-saria baino gehiago, kontzertuak emateko parada izatea dela garrantzitsuena azpimarratu zuen. Musika Lehiaketan Federazioko kide da Pablo Sarasate Lehiaketa.

Luc anaiek bat-batekotasunean sorturiko diskoa grabatu dute

■ *Kontzertua emanen dute Baionan, martxoaren 10ean*

Eneko Bidegain / Baiona

BAIONAKO Luc anaiek disko nahiko berezia grabatu dute Parisen. *Nahia* izena eman diote. Gerard, Sylvain eta Serge Lucek lan instrumentala osatu dute. Sylvain gitaran, Serge baterian eta Gerard akordeoian bildu, eta, «harmonia bati jarraituz», estudioan inprobisatu dute. Zein zati atxiki eta zein bota erabaki zuten inprobisaketa guztiak grabatu ondoan. «Bakoitzaren konposizio berezkoe-tan oinarritu gara, musika ahal bezain naturala osatzeko gisan», esplikatu zuen Sylvain Lucek. Hiru anaiek «kultura bera» dute eta musikaren inprobisaketa giroan hazi dira.

«Musika da bestearekin lasaikiarik gurutatzeko aukera onena. Musikako alderik ederrena topaketa da», hiru anaien ustez. Beren kultura ateratzen dute inprobisaketan. Euskal musikaren soina ateratzen dutela iduritzen zaie. «Nahi duguna jo dezakegu, baina erroak hor ditugu», azaldu zuten. Inprobisaketa margolanarekin parekatu zuten, euskal jatorriarekiko loturaren ulertarazteko.

Parisen arrakasta

Zortzikoa eta banakoaren aireak grabatu dituzte. Horiek jadanik Parisen jo zituzten. Entzuleei anitz gustatu zitzaizkien, euskaldun aireak zirela jakin gabe. Ekoizle batek ere entzun zuen haien saioa, Parisko klub batean. «Guregana jin zitzaigun, disko bat grabatu nahi zuela jakinarazteko». Diskoa Frantziako Estatu guztian zabalduko dute, baita Europa osoan eta Estatu Batuetan ere.

Diskoa hilaren 10ean aterako dute, eta egun be-rean kontzertua eskainiko dute Baionako antzokian, arratsako 21:00etan. Ez dute diskoa osorik joko, horretarako «inprobisatu zutena ikasi behar» bailukete. Zenbait musika zuzenean asmatuko dituzte, horrek dakarren «eten-gabeko irriskuarekin».

Angeluko kultura saltegiaren proiektuak polemika piztu du

■ *Baionako zinegotzi batek Merkataritza Ganberako bulegoko kargua utzi du, desadostasunengatik*

Erredakzioa / Baiona

LECLERC supermerkatuak Angelun eraiki nahi duen kultura saltegi handiak (1.200 metro koadroko zabalera izango du) Baionako Udalaren haserrea eragin du. Merkataritza Ganberak proiektuaren aldeko jarrera hartu zuen. Liliane Cormillot Baionako zinegotziak Merkataritza Ganberako bulegotik dimititu zuen atzo, jarrera horrekin ez zelako ados.

Jean Grenet auzapezak saltegi handien kontrako jarrai eutsi zion. Baionako hiri erdiko saltegi txikiek kalteak jasanen dituztelako beldur da.

Zurumurru berriak eta Greneten kezka

Extrapole saltegiak ateak Baionan ireki zituelarik, saltezaile txikien haserrea eragin zuen. Grenetek begi txarrez ikusten du Angelun gisa

bereko bertze gune baten gehitzea Baionako Extrapole-ri eta eraikitzen ari den Megadendari. FNAC saltegi baten ekarrarazteko xedearen solasak ere hedatzen hasiak dira, BAB2 merkatu gunean. Horrek ere kezkatzen du Jean Grenet. Angeluko gune horren eta Baionako hirierdiaren arteko desoreka bat gertatuko den beldur da.

Baionak «merkatu gunearen funtzioa» bete behar duela uste du Jean Grenetek.

Hori dela eta, Baionako auzapezak prefetari galdegin dio «dosierra bere gain hardezan eta batzorde nazionalera igor dezan».

Gisa berean jokatu zuen multizinemaren auzian. Angeluk ere bazuen multizinemaren eraikitzeke xedea. Baionako auzapezari gehiegi iruditzen zitzaion bi hiriek holako zinema izan zezaten. Argumentu berak erabili zituen Grenetek Angeluko proiektuaren aurka.